



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2016/07/22

Foru Aldundiak %39 handitu dau egoera txarrean dagozan pertsonen artean enplegua bultzatzeko inbertsinoa

Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasunerako Foru diputatu andrea berak eskatuta agertu da Bizkaiko Batzar Nagusien aurrera, aurton martxan jarri diran hiru Foru Dekreturen barri emoteko. Dekretuen helburua lanpostuak sustatea da, pertsona gazteen artean, 45 urtetik gorakoen artean, eta lan barik dagozan eta lan munduan sartzeko gaiztasun bereziak dituen pertsonen artean. Aldundiko arduradunak adierazo dauenez, bere sailak 6,7 milioi euro inbertiduko ditu egoera “txarrean” dagozan talde horreetan langabeziaren kontrako burrukarako foru estrategian, hau da, aurreko ekitaldian baino %39 gehiago.

Laespadak azpimarratu dauenez, prestakuntzea “enplegurako zubi moduan planteetan da, euren adina, ikasteko orduan izan daben ahalmena edo gizarte egoerea dirala eta, besteak baino gaiztasun gehiago dituen pertsonen enplegugarritasunerako funtsezko tresna eta apustu moduan”.

Gizarteratze ibilpideak eta zeharkako trebeztan edo trebezia teknikoetan trebakuntzea jasoten dituan prestakuntzaren aldeko apustuaz aparte, dekretuek enpresei emongo jakezan kontratazinorako laguntza zuzenak be jasoten ditue, “praktiketako kontratuen edo beken” arlotik kanpo, Laespadak azpimarratu dauenez, eta “beti be”, lantaldearen hazkunde “garbia” eragiten badabe.

Prestakuntzaren aldeko apustuari jagokonez, Foru Aldundiak Behargintzak eta udalen enplegu zentroak eta enplegugarritasunagaz erlazionautako proiektuetan gitxienez “hiru urteko” esperientzia daben hirugarren sektoreko erakundeak erabili gura ditu.

Alde batetik, lan barik dagozan Lurraldeko pertsona gazteen enplegugarritasuna bultzatzeko diru-laguntzen oinarriak eta deialdia ezarten dituan maiatzaren 31ko 102/2016 Foru Dekretua, “2.832.000” euroko inbertsinoa izango dauena eta jarduketarako hiru ildo jasoko ditua. Horreetako bi “barriak” dira, koalifikazinerik ez daukien gazteei zuzendutakoa (1.070.000 euroko partidea izango dauena), eta LHko edo Unibersidadeko ikasketak dituen gazteei zuzendutakoa (642.500 euro). Hirugarren ildoak gazteen kontratazinoa sustauko dau, eta kontratautako pertsona bakoxtarengaitik jaso ahal izango dan gehieneko laguntzea “7.000 eurokoa” izango da. Kontratuak mugarik bakoak edo gitxienez urtebetekoak izan beharko dira.

45 urtetik gorako pertsonen, denpora luzez lan barik edo gizartean baztertuta geratzeko arriskuan dagozan pertsonen enplegugarritasuna hobatzeko Foru Dekretuari jagokonez, laguntza guzti horreen erdia eroango dauela esan behar da. Lan Berri izenez ezagutzen dan ekimenak 3.455.967 euro jasoko ditu, hau da, aurreko urtean baino %27,6 gehiago.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Bukatzeko, Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasunerako batzordean eta bere agerraldia eskertu deusien batzarretako taldeen aurrean, Europako Gizarte Fondotik datozen beste laguntza batzuen “osagarri” moduan, “egoera zaurgarrienean” dagozan pertsonak – “ezinduak eta genero indarkeriaren biktima diran andrazkoak”, zehaztu dau– lan munduan sartzea bilatzen daberen proiektuak diruz laguntzeko “500.000 euroko” Foru Dekretuak azaldu ditu Laespadak.

BATZARRETAKO TALDEEN ZALANTZAK

Dekretuak martxan jarri izana eta Batzarretan emondako azalpenak eskertzeaz gain, Batzarretako taldeek deialdien eukiaren gaineko “zalantza” batzuk agertu dabere, puntu honeek dirala eta: Behargintzak zentroen partaidetzea, konkurrentzia lehiakorra, enplegu berdearen edo gizarte arloko barrikuntzaren aldeko apustua egiten daberen enpresen aldeko diskriminazio positiboa, emondako prestakuntzaren homologazioa edo aurton bertan partidak handitzeko aukerea.

Azken puntu horri jagokonez, Laespada oso argia izan da. “Aurton ez da gehiago egongo, eta 2017an, ikusiko dogu”, esan dau. Horren ostean argitu dauenez, “irailean” izango doguz lehenengo emaitzak.

Diputatu andreak behin baino gehiagotan errepikau dau deialdiak “konkurrentzia aske” modalidadean egin dirala, irabazleak “kalidade gehieneko” proiektuak dirala bermatzeko. Laespadak argitu dauenez, Behargintzak zentroek hiru puntu izango ditue proposamenen balorazioan, zentro horreek “publikoak” diralako eta eskualde bakoitzeko “errealidadetik gertu dagozalako”. Prestakuntzako tituluaren homologazioak, ikastaroak emoten dituan zentroaren arabekoak izango dira. Aldundiak “ez dau ezelango ziurtagiririk emongo”.

Gainera, Laespadak baieztu dauenez, ez dago enplegu “berdea” edo gizarte arloko barrikuntzan edo ikerketan behar egiten daberen enpresek egindakoa sustetako klausula berezirik, “gure eretxiz ez dalako egokia”, helburua enplegugarritasuna handitzea dalako, eta enplegua “arlo eta sektore askotan ari dalako sortzen, industrian, adibidez”.

EH Bilduri emondako erantzunean, Laespadak “uste dau” laguntzak ez dirala izango LHren eskaintzaren “bikoizketea”, Lanbide Heziketako ikastetxeetara “gerturazten ez diranakaz egiten dogulako behar”. Bukatzeko, laguntza horreen bitartez lortu diran lanpostuen jarraipena eta ebaluazioa egingo dala azpimarratu dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
22/07/2016

La Diputación incrementa en un 39% su inversión para fomentar el empleo entre las personas más desfavorecidas

La Diputada Foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha comparecido esta mañana, a petición propia, en las Juntas Generales de Bizkaia para informar de la puesta en marcha este año de tres Decretos Forales que persiguen promover puestos de trabajo entre las personas jóvenes, mayores de 45 años, desempleadas de larga duración y en riesgo de exclusión social. La responsable foral ha sostenido que su departamento invertirá 6,7 millones de euros, lo que supone un aumento del 39% respecto al ejercicio anterior en la estrategia foral de lucha contra el paro en el Territorio, entre estos colectivos “desfavorecidos”.

Laespada ha destacado que la formación “se plantea como un puente hacia el empleo, como una herramienta y una apuesta clave para mejorar la empleabilidad de personas con dificultades añadidas por su edad, por sus capacidades académicas o por su situación social”.

Además de la apuesta formativa, apartado en donde se incluyen tanto itinerarios de inserción como formación en competencias transversales o técnicas, el paquete normativo incorpora ayudas directas a la contratación para las empresas, fuera del ámbito de lo que son “los contratos en prácticas o las becas”, ha advertido Laespada, y “siempre” que supongan un incremento “neto” de plantilla.

En lo que respecta a la apuesta formativa, la Diputación contará con los Behargintzak y centros de empleo municipales, y con entidades del tercer sector con experiencia de al menos “tres años” en proyectos de empleabilidad.

Por un lado, el Decreto Foral 102/2016, de 31 de mayo, para la Mejora de las Empleabilidad de las Personas Jóvenes, con una inversión de “2.832.000” abarca tres líneas de actuación. Dos son “nuevas”, como son las destinadas a jóvenes desempleados sin cualificar (con una partida de 1.070.000 euros), y las dirigidas a jóvenes con FP o estudios universitarios (642.500 euros). La tercera línea fomentará la contratación de jóvenes con un máximo de ayudas por persona contratada de “7.000 euros”, para contratos indefinidos o con una duración mínima de un año.

Por su parte, el Decreto Foral para la mejora de la empleabilidad de las personas mayores de 45 años, desempleadas de larga duración o en riesgo de exclusión social, se llevará más de la mitad de este paquete de ayudas. Serán 3.455.967 euros en el conocido Lan Berri, que supone un incremento del “27,6%” respecto a lo ejecutado el año anterior.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Por último, Laespada ha dado cuenta también en la comisión de Empleo, Inserción Social e Igualdad, ante unos grupos junteros que han agradecido su comparecencia para explicar el contenido de los Decreto Forales, de un partida de “500.000 euros” destinada a subvencionar proyectos que tienen como objetivo la inclusión laboral de las personas “más vulnerables” - “discapacitadas y mujeres víctimas de violencia de género” , ha concretado- como “complemento” a otras provenientes del Fondo Social Europeo.

DUDAS DE LOS GRUPOS JUNTEROS

Además de agradecer la puesta en marcha de los decretos y las explicaciones en sede parlamentaria, los grupos junteros han sacado a relucir algunas “dudas” sobre el contenido de las convocatorias en relación a la participación de los behargintzak, la concurrencia competitiva, la discriminación positiva de empresas que apuestan por el empleo verde o la innovación social, la homologación de la formación o la posibilidad de ampliar las partidas este mismo año.

Respecto a esto último, Laespada ha sido clara. “Este año no habrá más, y en 2017 ya veremos”, ha dicho destacando el esfuerzo que realiza la Diputación, para apostillar después que “en septiembre” se obtendrán los primeros resultados.

La diputada ha repetido en varias ocasiones que las convocatorias se han realizado en “libre concurrencia” para garantizar que ganan los proyectos de “más calidad”. Laespada ha aclarado que los Behargintzak tendrán tres puntos en la valoración de las propuestas, ya que estos centros son “públicos” y “están pegados a la realidad” de cada comarca, y que el título formativo homologado dependerá del centro que imparta los cursos. La Diputación “no dará ningún certificado”.

Además, Laespada ha confirmado que no hay cláusulas especiales para fomentar el empleo “verde” o el desarrollado en empresas que trabajan en innovación social o investigación, ya que “no lo vemos oportuno”, puesto que de lo que se trata es de aumentar la empleabilidad y el empleo se está generando “en muchos ámbitos y sectores, como el industrial”.

En respuesta a EH Bildu, Laespada “espera” que las ayudas no supongan una “duplicidad” de la oferta de la FP, “ya que trabajamos con aquellos que no se acercan” a los centros de formación profesional. Por último, ha significado que se hará un seguimiento y una evaluación de los puestos de trabajo obtenidos por medio de estas ayudas.